

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa parte hartzen ari da Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europar Sarearen (NPLD) batzar nagusian

Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua Bruselan dago gaur, eta atzo, osteguna, gutxiengoan hizkuntzei buruzko konferentzia batean hartu zuen parte

Ostirala, 2017.eko azaroak 10

Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea, Mikel Arregi, Bruselara joan da Nafarroako Gobernuaren ordezkari batzen buru gisa, ostiral honetan parte hartzeko Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europar Sarearen batzar nagusian (NPLD dira ingelesez erakundearen siglak). Gainera, han bertan, gutxiengoan hizkuntzei buruzko Konferentzian izan zen atzo, ostegunean.

NPLDaren helburua da Europar hizkuntza aniztasuna sustatzeko ahotsa izatea, maila guztietan informazioa eta esperientziak trukatzuz, ulermena errazteko eta nazioartean aniztasun honen aitortza handiagoa lortzeko.

Nafarroa eskubide osoko kidea da eta Sarearen jardueretan parte hartzen du, Euskarabidearen bidez.

Horregatik han dago gobernu nazionalekin, eskualdeetako gobernuekin eta hizkuntza plangintzako beste entitate batzuekin batera. Sare honetan, ondoko erakunde hauetako ordezkariak daude: Kataluniako Generalitatea, Valentziako Generalitatea, Eusko Jurlaritzak, Balear Uharteetako Gobernua eta Galiziako Xunta, Espainiako Estatukoak; badaude, gainera, Europa osoko beste gobernu eta eskualdeetakoak ere. Horiekin guztiekin batera, beste bazkide asko daude, eta horien artean aipa ditzakegu tokiko



Mikel Arregi, Euskarabidekoa, Xuntako ordezkariaren eta NPLDko karguen ondoan

agintariak, gobernuz kanpoko erakundeak, ikerketa zentroak eta unibertsitateak.

Gutxiengoen hizkuntzei buruzko konferentzia

Nafarroaren ordezkariak lan jardunaldi batean aritu da ostegun honetan, ostiraleko batzar nagusiaren aurretik. Jardunaldi hori NPLDk eta Centre Maurits Coppieters erakunde belgikarrak antolatu dute, eta xedea izan da gutxiengoen hizkuntzek gaurko testuinguruan duten egoera aztertzea.

Konferentzia honetan azpimarratu da “politika publikoek esku hartu beharra dutela hizkuntza hauen biziberritzea bermatzeko eta hiztunen erabilera indartzeko eguneroko jardueretan”. Gutxiengoen hizkuntzen gaurko egoera aztertzean, ardatzak izan dira –adierazi den legez– “migrazio eta mugigarritasun aldaketak, hizkuntzek ekonomiaren katalizatzaile gisa duten papera, eta hizkuntzak hezkuntzaren alorrean”. Horietan guztietan, erakunde publikoak eragile aktiboak dira eta leku garrantzitsua dute.

Euskarabidea 2009. urtean hasi zen NPLDren jardueretan parte hartzen, behatzaile gisa hasi ere, eta ondoko urtean kide izatea eskatu zuen. Orduz geroztik Nafarroako Gobernuak eskubide osoko kidea da. Euskarabideak haren bi organo kudeatzailetan parte hartzen du: Zuzendaritza Batzordean eta Batzar Nagusian. Gainera, lanean aritzen da lantaldearen bilera eta jardueretan, Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen baitan.